



PICORE ETA LOAN TALDEAK BONBERENEAN

Anje Duhalderen biharko kontzertua bertan behera geratu da; etzi, berriz, rock doinuak izango dira nagusi > 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2010-01-21

VIII.URTEA 1.908.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



N. LATABURU

JUAN MANUEL ZUBELZU, 'TXUBEL' LAUBURU KE TALDEKO ENTRENATZAILEA

«Lehen pisua beteranoengan geratzen zen, orain gazteek hartu dute ardura hori»

IBARRA Areto futboleko Lauburu taldeak ez zuen denboraldia oso fin hasi, baina egoerari buelta ematea lortu dute eta orain sailkapen nagusiko hirugarrenak dira 33 punturekin 3

Etzi hasiko da bertsolari nafarren txapelketa

LEITZA Hiru leitzar lehiatuko dira; Miel Mari Elosegi, Diego Riaño eta Jose Luis Barberia 6

Zilarrezko eta Urrezko aizkolariak Lekunberrin

AIZKORA Mujika eta Arrospide elkarren aurka lehiatuko dira; Saralegi II.ak debuta egingo du 7

Asteburu honetan emango diete hitza Amaro zuzendariak bizilagunei

TOLOSA Iritzia emateko panelak eskola aurrealdean jarriko dituzte 4



Sahararen aldeko ekimena. I.T.

Sahararren aldeko janari bilketak aurrera jarraitzen du

TOLOSA Etzi haima bat jarriko dute Triangulo plazan 11:00etatik aurrera 2

'Soinujolearen semea'-ren itzulpena saritu du 'Times' egunkariak

ASTEASU 2003. urtean idatzi zuen Bernardo Atxaga idazleak liburua 5

Hilaren 25ean hasiko da Jesusen Bihotza ikastolaren Kultur Astea

VILLABONA Josune Bereziartuak 'Erori eta berriz hasi' hitzaldia eskainiko du 5

Picore eta Loan taldeen musika etzi, Bonberenean

Kultura » Anje Duhaldere kontzertua biharko iragarrita zegoen, baina azkenean bertan behera geratu da.

ERREDAKZIOA

Astebururo bezala, honetan ere ez du hutsik egin Bonbereneako zuzeneko musika eskaintzak, eta bi kontzertuz gozatzeko aukera izango da etzi. Hain zuzen ere, Picore eta Loan taldeak ariko dira 22:30etik aurrera. Biharko ere beste kontzertu bat aurreikusita zuten Bonbereneakoek, Anje Duhaldere, baina azkenean bertan behera geratu da.

Picore taldea ariko da lehendabizitako gauetan. Zaragozatik datorren taldeak Espainian eta Europan zehar hainbat kontzertu eman ostean egingo du geldialdia Bonbereneako eszenatoki gainean.



Bilboko Loan musika taldeko kideak. HITZA

2003an sortu zen taldea. Euren musikak avant-rock-aren ezaugarriak hartzen ditu, eta baita math-rock, post-hardcore edota free jazz-arenak ere.

Loan taldea, bestalde, Bilbotik dator. 2005ean sortu zen, eta rock

talde baten oinarritzko formatua erabiltzen dute. Hirukote moduan aritzen dira eta euren kantak sortzerako orduan rock «basati, zuzena eta zikina» gogoko dute. Influentzia psikodelikoa eta iluna ere nabari daiteke unerik lasaienetan.

Sahararren aldeko janari bilketan parte hartzeko deialdia egin dute

Elkartasuna » Haima jarriko dute etzi Triangulon, 11:00etatik aurrera, Saharako ohiko jakiekin eta musikarekin.

ERREDAKZIOA

Hilabete bukaerara arte luzatuko da urtero sasoi honetan martxan jartzen duten Piztu Itxaropena kanpaina. Saharar errefuxiatuen kanpaleketan bizi direnentzat jakiak eta materiala biltzea du helburu ekimenak, eta eskualdean Tolosaldea Sahararekin Sahara Biz! elkartearen arduratzen da hori gauzatzeko.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Berokia.** Tolosan, Kikara tabernan, hilaren 5ean, mutilen bi beroki beltz nahastu ziren. Nirea (Crazy markakoa) daukanak dei dezala 686 87 04 07 telefono zenbakira.



Tolosako Kultur Etxean kanpoaldean ikus daiteke jasotako kilo kopurua. IT.

Tolosaldeko udaletxe, ikastetxe eta supermerkatu gehienetan jarriak dituzte elikagai eta higiene produktuak biltzeko guneak. Aurtetik, horregatik, eurek jarritako helburua iristeko herritarrei deia luzatzen diete ekimenean parte har dezaten, «ezinbestekoa baitute sahararrek laguntza hau».

Jakiez gain, eskola materiala ere ari dira jasotzen elkartekoak. Saharar lurralde askatuan ikastetxe bat eraiki nahi dute, eta beldutako materiala bertara bideratuko dute.

Herritarrek sentsibilizatzeko ekimen berezia

Tolosaldeko Sahararekin elkartek herritarrek animatu nahi ditu janari bilketan parte hartzera, eta hauek sentsibilizatu asmoa dotezen bi larunbatetan haima jarriko dute Tolosako Triangulo plazan.

Bertan, jakiak eta materiala jasotzeaz gain, Piztu Itxaropena kanpainak bere baitan duen elkartasuna eta sentsibilitatea zabalduko dute. Halaber, saharar ohiko jakiak eta tea dastatzeko aukera ere izango da, bertako musika entzutearekin batera. Bertaratu nahi duenak haimaren ateak zabalik izango ditu 11:00etatik aurrera.



Laiotz Muruak eskiatzaile tolosarra txapelketako une batean. HITZA

Muruak anaiak maila ona ari dira erakusten alpino eskian

Kirola » Laiotz Muruak Masellan jokaturiko proban Candanchun izan berri den probarako sailkatzea lortu zuen.

ERREDAKZIOA

Iraupen eskiak ez ezik, alpino modalitateak ere emaitza oso onak uzten ditu eskualdean. Izan ere, hasi berri dira gazteen mailako txapelketak, eta 11 eta 12 urteko Laiotz eta Beñat Muruak tolosarrak oso maila ona ari dira erakusten.

Ainhoa Ibarra gernikarrak zuzentzen duen Ainhoa Copos taldearekin hartzen dute parte anai tolosarrek. Ibarrek lau Olinpiar Jokotan hartu du parte eta zazpi Munduko Txapelketatan, eta maiz igo da podiumera bertako nahiz nazioarte mailako txapelketatan.

Hain zuzen ere, Masella (Herrialde Katalanak) izan zen urte

berriko lehen txapelketako gunea, bi anai tolosarrentzat. Bigarren Cerdeñako GPan Kataluniako Infantil mailako lehenengoan, Laiotz Muruak 18. postuan amaitu zuen slalomean eta 45. erraldojean. Emaitza horiei esker Espainiako Txapelketako lehenengo fase-rako sailkatzea lortu zuen. Proba hori pasa den asteburuan izan zen Candanchuko eski estazioan. Slalom eta erraldoieko bi probak amaitzea lortu zuen, eta sailkapen orokorrean 44. postuan sailkatu zuen. «Emaitza ona da, pistaren egoera txarra kontuan hartuta».

Dena den, lanean jarraitu beharko du tolosar eskiatzaileak bigarren fase-rako sailkatzeko puntuak loritzeko. Ibarrek lau Olinpiar Jokotan hartu du parte eta zazpi Munduko Txapelketatan, eta maiz igo da podiumera bertako nahiz nazioarte mailako txapelketatan.

Laburrak

Urdiria Txiki antolatuta, Kalderero konpartsa

INAUTERIAK • Ohiko moduan, Urdiria Txiki elkarteak Kaldereroetako konpartsa antolatuta du. Kaldereroren eguna bi larunbat barri izango da, hau da, otsailaren 6an. Konpartsa ijito taldeak, hartzak eta bere hezitzaileak, erreginaren karrozak eta zuzendariak osatuko dute. Horiez gain, Musika Banda eta abesbatza taldea ere eurekin batera joango dira. 19:00etan elkartuko dira Plaza Zaharrean, eta pregoiarren ostean ibilbidea egingo dute Alde Zaharrean zehar, Solana, Korreo, Gorriti eta Kale Nagusitik, berriro ere Plaza Zaharrean iristeko.

Mendi federatu txartela egiteko aukera

MENDIA • 2010eko mendi federatu txartela egiteko aukera dago Tolosako Alpino Uzturre mendi elkartean eta Oargi mendi elkartean. Alpino Uzturren astelehenetan eta asteazkenetan egin ahaliko da 19:30etik 20:30era egoitzan bertan (Gudari 5) edo bestela, alpinozture@hotmail.com helbidean. Oargi mendi elkartean, bestalde, astelehenetan, asteartean eta ostegunetan jarri dute horretarako aukera, 19:00etatik 21:00etara bitarte euren egoitzan (Santa Maria 4). www.oargi.org helbidean ere egin ahaliko da.

Beti nahi jatetxea

Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

E Elkarrizketa

JUAN MANUEL ZUBELZU › Lauburu KE taldeko entrenatzailea

Ibarra » Denboraldiko lan erdia egin dute Lauburu areto futbol taldeko jokalariek; euren arduradunak, 'Txubel'-ek, orain arte lortu dituzten emaitzak goraiatu ditu.

«Ahal duguna baino gehiago ematen ari gara, ez dut inolako kexarik»

NOELIA LATABURU

Denboraldiko joaneko partida guztiak jokatu ditu jada Nazional A Mailako Lauburu areto futbol taldeak. Zaila suertatu zen denboraldi hasiera ibarrentzat, baina egoerak buelta hartu zuen eta hirugarren dira orain sailkapen nagusian 33 punturekin, Zierbena (38 puntu) eta Zalatorri (34 puntu) taldeen atzetik. Juan Manuel Zubelzu Txubel entrenatzailearen (Ibarra, 1967) mutilak «bikain» ari dira lanean.

Zer moduz joan da denboraldiaren lehen zatia?

Oso ondo joan da. David (Prados) eta Karrera betanoek taldea utzi zuten, azken honek lesio larri bat izan zuelako, eta denboraldiari nahiko urduri ekin genion. Baina emaitzak dira garrantzitsuak eta konfiantza hartuz joan gara. Taldea pixka bat nekatuta dago, maila honetan jokatzeko oso jende gutxi gaudelako, hamar gara.

Zer suposatu zuen bi betano hauek utzitako hutsuneak?

Davidek utziko zuela bagenekien denboraldi hasieran, baina Karre- rak iaz denboraldi kaskarra egin zuela eta beste urte batez jokatu nahi zuten, baita gazteei laguntzeko ere. Bere lesioak nolabait indarra eman dio taldeari, izan ere, lehen ardura guztia betanoengan geratzen zen eta orain beraiek hartu dute ardura hori. Gehiago kostako zitzaiela uste nuen baina oso ondo hartu diote neurria.

Pizgarri modukoa izan da, beraz.

Bai, bai. Lehen betanoak ziren gazteen ispilua, onerako eta txarrerako. Baina mentalki zein jokalaririk bezala hazi egin dira. Seriotasun handia hartu dute, jarrera ere aldatu dute. Badakite beraiek dutela orain ardura.

Eta jarrera horrekin, hirugarren postuan heldu zarete bide erdira.



N. LATABURU

Bai, oso pozik gaude. Denboraldi hasieran helburua iaz emandako maila mantentzea eta erdialdean geratzea izan zen, baina orain egiten ari garen jokoa ikusita lehen lau sailkatuen artean geratzea izango da helburua. Motibazioak hori egon behar du.

Igoera postuak ere gertu dituzue.

Hori oso zaila da, diru asko behar delako horretarako. Taldea igotzen bada milioi asko behar dira eta egoera dagoen bezala oso zaila da. Ibarra mailan ez du uste posible izango denik, gero agian Gipuzkoa mailan aterako litzateke, ez dakit... Jokalarien aldetik ere maila horretan aritzeko 4-5 geratuko lirateke. Dena aldatu beharko litzateke.

Aurretik ere ezagutzen duzuela-ko maila hori esaten duzu hori?

Bai, nik igoera baino lehen jokatu nuen, igo eta utzi egin nuen. Baina jaitsi ere horregatik jaitsi ginen, ez zegoelako dirurik eta instituzio-

nalki ez zelako laguntza nahikorik jaso. Kirol arloagatik ez, arlo ekonomikoagatik jaitsi zen taldea.

Zure aurreikuspenak gaintu ditu aurtengo taldeak.

Dudarik gabe. Zilarrezko Mailatik bi talde jaitsi dira aurtengo eta maila asko igo da. Gure jokalarien adin tartea 22-23 urte artekoa da, eta gazteak gauza asko behar ditu maila horretara heltzeko. Helduek duten esperientzia falta zaio gazteari; fisikoki ez, baina bai teknikoki. Pentsatzen dut bi urte barru oso maila ona izango dugula, oso jokalaririk onak ditugulako. Orain arte eginkoarekin konformatzen naiz, izugarria da, eta hemendik aurrerako ongietorria izango da.

Nola ikusten dituzu zure jokalaririk?

Hamar jokalaririk gara, eta beste bat beste talde batean ari da, Tolargin. Bi atezain ditugu, Igor Zabalo, 10 denboraldi egin dituen gurekin,

eta Joseba Balerdi gaztea. Gure mailako lau atezain onenen artean daudela esango nuke. 23 urteko beste hiru jokalaririk oso onak ditugu.

«Jubeniletan entrenatu nituen egungo taldeko jokalaririk; hauek igotzen ikusteak merezi du»

«Lehen pisu guztia betanoengan geratzen zen eta orain gazteek hartu dute ardura hori»

Unai Labaka oso maila altuan ari da jokatzeko, baita Kristian Davila ere. Gero gazteagoen taldeetara dago. Hauen artean Aitzolek, 19 urtekoa, aukera handiak ditu, oso jokalaririk zintzoa da, oraingo gazte asko ez bezala. Beste jubenil bat ere badugu gurekin, bere helburua

gurekin ikastea da. Taldea oso osatuta dago. Denak teknikoki oso maila altukoak dira, 5-6 urte baitaramatzate areto futbolean.

Aldaketa izan al da zuretzat talde gazte bat zuzentzea?

Ez, alderantziz. Nik jubeniletan entrenatu nuen eta jokalaririk hauek denak nirekin egon dira aurretik. Guztiak ezagutzen nituen, horrek asko errazten du lana. Zure jokalaririk nola ari diren igotzen ikusteak asko poztzen nau, horregatik bakarrik merezi du jarraitzea. 13 urte zituztela hartu nituen, pentsa. Honek ematen du indarra jarraitzeko.

Taldeari hobetu beharreko ezer ikusten al diozu?

Beti dago zer hobetua. Hor goran egoteko entrenamendu eta partidak asko behar dira. Zentzu honetan ez da berdina maila honetan bi urte daramatzatenak edo 7 urte. Baina nik ez daukat inolako kexarik, ahal duguna baino gehiago ematen ari gara talde bezala.

Haiek ere hain gustura al daude?

Ni bezainbeste. Iaz dute sinesten, baina zailena maila honetan mantentzea izango da.

Ikusleen aldetik babesa jasotzen al duzue?

Ibarrako jende asko etortzen da, heldu nahiz gazte. Gazte hauek areto futbol ikusten dute eta gero imitatu egin nahi dute. Horregatik Ibarra hainbeste gazte aukeratzeko dute areto futbol.

Zure ibilbideari begiruta, zer balorazio egiten duzu?

Agian ez naiz proposena hori esateko, baina egindako lanarekin oso gustura nago. Orain arteko lanarekin, eta egungo taldearekin. Seriotasun handia dugu eta hori asko baloratzen dut. Harrobiko jendea arduratsua da. Kalitatea ez da nahikoa, lana eginda mantendu zaitezke maila onean.

Harrobia zaindu beharra dago...

Talde askok filosofia hori dute orain, dirurik ez dagoelako, harrobiko jokalaririk jokatzea. Guk nahi gabe lan hori duela 4-5 urte egin genuen.

Eta aurrera begira, zer asmo?

Hau talde umila da, ni gustura nago aspaldi ezagutzen ditudan gazte hauekin lanean. Beraz, ahal dudana emango dut, entrenatzea asko gustatzen zait. Gazte hauekin aurrera jarraitzeko motibazioa daukat.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Amaroztarrek asteburu honetan dute euren iritzia emateko aukera

Tolosa » Auzoak etorkizunean beharko dituen azpiegituren inguruko iritzia jasoko dituzte.

ERREDAKZIOA

Amaroztarrei iritsi zaie erabakitzeke unea. Zer nolako auzoa nahi dute etorkizunerako? Galdera hauxe da asteburu honetan erantzun beharko dutena.

Amarozko Auzo Elkarteak antolatutako kontsulta da, izan ere, hasi dira Amaro paper-fabrika botatzen eta bertan eraikiko duten etxebizitza kopurua ikusita «derri gorrezkoa» da auzotarrek beharko dituzten azpiegiturak zehaztea. «Amaroztarrek beren iritzia eman ahal izango dute auzoarentzat beharrezkotzat jotzen dituzten dotazio komunitarioen gainean eta etorkizunera begira nahiko luketen herriaz», argitu du auzo elkarte Floren Altunak.

Ekimena auzoko eskolako eraikin inguruan egingo dute. Bertan jendearen ekarpenak jasotzeko

Paneletan hainbat gai jorratuko dituzte; zerbitzuak, kirola, kultura, osasuna eta abar.

auzoko planoak jarriko dituzte. «Panel horietan gai hauek jorratuko dituzte auzotarrek: ekipamenduak, zerbitzuak, kirolak, kultura, osasuna eta abar», argitu du Altunak. «Amaroz auzoko komunitatea berriro parte-hartze prozesu batean murgilduta dago, guztiz tresna demokratiko baten erabilerraren bidez: herri kontsulta. Amaro auzo Elkarteak jarri du erreminta auzoaren zerbitzura, Udalaren laguntzarekin», dio.

Hurrengo urratsa

Asteburu honetako kontsulta bukatu ondoren, jasotzen dituzten



Herri kontsultan parte hartzeko deia egiten du Amaro auzo Elkarteak. HITZA

irritzi guztiak aztertuko dituzte eta kontsultan aritu den Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz taldeak «saikatu, ordenatu eta bilduko» ditu. Jasotako guztiarekin emaitzen txostena egingo dute eta ondoren triptiko bat ere egingo dute. «Triptiko hori auzotar guztiei bidaliko diegu informatzeko eta ebaluatzeko. Horrela kontsultaren bigarren faseari begira jarriko gara», dio Altunak.

Hitzaldi-eztabaidak

Asteburu honetako kontsultaren ondotik hitzaldi-eztabaidak anto-

» ZENBAIT DATU

Ordutegia

■ **Larunbatean, urtarrilak 23.**

10:00etatik 20:00etara.

■ **Igandean, urtarrilak 24.**

10:00etatik 20:00etara.

Lekua

■ **Eskola zaharreko aurrealdean.**

latuko dituzte. «Emaitzak azterteaz gainera, bestelako proposamen edo ñabardurak erantsi edo sartu ahal izango dira. Hori bukatu ondoren, behin betiko proposa-

Tolosarrak gerturatzea nahi du auzo elkarteak, «ekimen hau ezagutu eta konpartitu ahal izateko»

mena egingo da, eta Udalari aurkeztuko zaio», argitu du.

«Kontsulta hau, parte hartzeko prozesuei dagokionez, aurreneko esperientzia da. Hortaz, interesaturik dauden tolosar guztiak gonbidatzen ditugu egun horietan Amaro bisitatzea eta gurekin ekimen hau ezagutu eta konpartitza. Izan ere, interes orokorrekoak diren gaiak garatzeko modu parte-hartzaile hau eredu garria izan daiteke herri mailan. Honekin aurrera egiteko udal gestio parte-hartzaileagoa eta ondorioz, demokratikagoa, bultzatu nahi dugun», nabarmendu du.



Ezkeretik eskubira Iñaki Artola, Joxean Urretabizkaia antolatzailea, Eñaut Larrea eta Beñat Urretabizkaia. HITZA

Eskualdekoak Lizarrako txapelketako finalean

Pilota » Lau t'erdiko lehiaketan Ikaztegieta Larreak eta Urretabizkaiek eta Alegiako Artolak irabazi dute.

Ezkarako Darioaren aurka; kade-teetan Alegiako Iñaki Artola izan zen garaile Aramako Iribarriari 18-7 ginda; eta jubenetan Ikaztegieta Beñat Urretabizkaiek 18-17 emaitzarekin garaitu zuen Lizarrako Unanua.

ERREDAKZIOA

Pasa den igandean Lizarrako lau t'erdiko Pilota Txapelketaren finalak jokatu zituzten eta eskualdeko hiru pilotarik lortu zuten txapela.

Infantiletan Ikaztegieta Eñaut Larreak irabazi zuen 18-7

585 pilotari

Guztira 585 pilotarik hartu dute parte txapelketan, herrialde desberdinetakoak gainera, eta sei mailatan aritu dira.

Txapelketako antolatzaileen hitzetan lau t'erdiko txapelketa «oso polita» izan da.

Dantza afrikar ikastaroa Asvinenean

Aduna » Asteazkenetan izango dira eskolak martxora bitarte; hiru hilabete irauten duen tailerrak 135 euro balio du.

ra arte luzatuko da. Irakaslea Gineako Marie Toure izango da eta zuzeneko perkusioarekin ariko dela aurreratuko du.

Ikastaroan parte hartzeko 135 euro ordaindu behar dira eta asteazkenetan izango da.

Informazio gehiago eskuratzeko eta izena emateko 653 732 709 (Ainhoa) edota 691 6262 606 (Laida) telefono zenbakietara deitzeko eskatu dute.

ERREDAKZIOA

Asvinenea eskolak dantza afrikarren ikastaroa antolatu du. Hil honetan bertan hasiko da eta martxo-



TXOKOA HITZA

HITZAK sarrera pare du

LAGUN ARO GBC REAL MADRID

saskibaloi partidarako

Urtarrilak 24 • Igandea • 12:30ean Donostiako Ilunben

HITZAK sarrera pare du

TXOLARRE irratiak bere 10. urteurrenean antolaturiko Bertso jaialdirako

Urtarrilak 23 • 18:00etan Tolosako Leidor aretoan

sarrerak



sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira

Hilaren 25etik 31ra Jesusen Bihotza ikastolan IV. Kultur Astea

Villabona » IV. Kultur Astearen baitan itxiak eta irekiak diren ekintza ezberdinak antolatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Jesusen Bihotza Ikastolak IV. Kultur Astea ospatuko du hilaren 25etik 31ra. Egun horietan, eskola barruko ekintza ugari izango dituzte: hitzaldiak, ikasleen emanaldia, ikusmen osasunerako heziketa tailerra, ikaspilota, *Ikasgela hegalaria* filma ikusteko aukera, formazio saio eta tailerrak guraso eta ikasleentzat, Patxin eta Potxin pailazoak edota eskalada saio praktikoa. Ikastetxe barruan izango ez diren ekintza irekiak ere antolatu dituzte, hala ere.

Astelehen eta asteazkenean, hilak 25 eta 27, 17:30etik 19:30era Zizurkilgo Urkamendi Elkartean sukaldaritza ikastaroa emango du Jokin Zavalak eta guraso, irakasle eta ikasleei zuzendua izango da.

Josune Bereziarturen 'Erori eta berriz hasi' hitzaldia

Hilaren 29an ostirala, herritar guztiei irekia izango den *Erori eta berriz hasi* hitzaldia eskainiko du Josune Bereziartu eskalatzaileak Gurea Zineman. Hitzaldia 18:00etatik aurrera izango da.

Hilaren 31ean, ibilbide neurruak egingo dituzte. Ibilbide bat motza eta beste luzea izango dira. Luzea egiteko 09:30ean abiatuko dira eta motza egiteko 11:00etan.

Argazki lehiaketako argazkiak ere ikusgai izango dira Txerminen eta irabazleak ezagutzera emango dituzte.

Laburrak

Alkartasunaren kuota ordaintzeko epea zabalik

ANOETA » Urtarrilaren 18tik Alkartasuna Biltokiko 2010eko kuota ordaintzeko epea zabalik dago. 18:00etatik 20:00etara egongo dira biltokian eta bakoitzak bere txartela eraman beharko du ordaindu ondoren zigilua jartzeko. Kuota ordaintzeko azken eguna martxoaren 31 izango da.

Loatzo Musika Eskolaren eskutik pandero ikastaroa

LOATZO » Loatzo Musika Eskolaren pandero ikastaroa antolatu du hilaren 28tik ekainaren 17a bitarte. Ezinbestekoa da Loatzo Musika Eskola osatzen duen herrietako batean erroldatua egotea, hau da, Anoeta, Alegia, Aduna, Altzo, Ibarra, Irura, Villabona eta Zizurkilgo herritarrei zuzendua. Ikastaroaren kostua 35 eurokoa izango da. Izen ematea, urtarrilaren 14ean ireki zen eta azken eguna hilaren 25a izango da. Loatzo Musika Eskola-ko bulegoan, hau da, Bulandegi bidea 23 behea, Zizurkil. Pandero ikastaroa 7 urtetik aurrerakoentzat izango da eta ez dago adin mugarik.

Oiz mendira joango dira Aizkardikoak igandean

VILLABONA » Igandean, hilak 24, Zugastieta-Oiz-Bolibar ibaldia egingo dute Villabonako Aizkardi mendi taldekoek. Antolatzaileek 20 kilometro inguruko bidea egiteko sei ordu eta erdi beharko dituztela aurreikusi dute. Izena emateko azken eguna gaur da eta 20:00etatik 22:00etara 649 717 182 telefono zenbakira deituz edota Aizkardiko egoitzan bertan eman daiteke. Olaederra kiroldegaren aurretik 07:00etan abiatuko dira mendizaleak.

Txolarreren Bertso Jaialdirako sarrerak

Anoeta » Larunbata eguerdira arte Tolosako Raku eta Orbela tabernetan erosi ahal izango dira.

ERREDAKZIOA

Larunbatean Leidor Antzokian Txolarre irratia antolatutako bertso jaialdia izango da 18:00etan.


Bertan, punta puntako bertsolariak izango dira: Mailen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu eta Beñat Gaztelumendi.

Sarrerak 6 euro balio du eta larunbata eguerdira bitarte Tolosa-

ko Raku eta Orbela tabernetan eskuratu daitezke.

Leidorreko leihatilan, zinema orduetan, eta egunean bertan ere eskuratu ahal izango dira. Alegia-ko Jubilatuen Biltokian, Anoetako Buztina tabernan, Berastegiko Urepele Elkartean, Villabonako Amasa kafetegian eta Zizurkilgo Atxulondo eta Iriarte tabernetan, berriz, gaur da sarrerak erosteko azken eguna.

Era berean, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, bi sarrera ditu bere harpidedunen artean zozketatzeko. Sarrera hauek eskuratzeko, 943 65 56 95 telefono zenbakira deitu besterik ez da egin behar.



Bernardo Atxaga idazle asteasuarraren lanak hizkuntza askotara itzuli dituzte. J. SAIZAR

'Soinujolearen semea'-ren ingelesezko itzulpenak 'Times' saria jaso du

Asteasu » Erresuma Batuko 'Times Literary Supplement' aldizkariak ematen dituen sarien artean dago Atxagarena.

ERREDAKZIOA

Bernardo Atxaga idazleak, urtea hastearrekin batera beste sari bat eskuratu du. 2003. urtean idatzi zuen *Soinujolearen semea* liburuaren ingelesezko itzulpena saritu dute atzerrian. Oraingoan, Erresuma Batuan eman diote eta *Times* egunkariko, *Times Literary Supplement* aldizkariak ematen dituen 2009ko sarituen artean dago Atxagak idatzirik liburu.

Urtero Erresuma Batuko aldizkari honek, ingelesera itzultako liburu bati ematen dio saria eta, 2009ko saria, *The Accordionist's Son*-ek irabazi du. Margaret Jull Costak gaztelaniatik itzuli zuen ingelesez. Hainbat sari poltsikoratu ditu dagoeneko Atxagak lan honekin; tartean, Espainiako Kritikaren saria edota 2008. urtean Italian eskuratutako Grinzane Cavour eta Mondello sariak.

Atxagaren liburuaren itzulpenak bata bestearen atzetik

2009. urte bukaeran Bernardo Atxaga asteasuarraren hainbat lan berri kaleratu dira atzerrian. Eta datozen hilabeteetarako ere argi-

talpen gehiago aurreikusten dira. Esaterako, argitalpen berrietako batzuk, bulgariaraz, kroazieraz eta hebreeraz izango dira.

Bulgariar argitaratu da oraintsu *Soinujolearen semea* eleberriaren itzulpena: *Cuhgm Ha Akopge Hucma*. Bestalde, *Gizona bere bakardadean* hebreeraz argitaratuko da 2010eko maiatza eta ekaina artean. *Obabakoak* liburuaren argitaratua dago Israelen.

Bi anai, Bi letter eta *Sugeak* ipuinak kroazieraz kaleratu berri dira (gaztelaniako *Historias de Obaba* lanetik itzultita) *Priceiz Obaba*, *Edicje Bozicevic* (Zagreb, 2009) izenpean. Nola ez, bere lanik esanguratsuen den *Obabakoak* kroazieraz ere irakur daiteke. *Bi anai* eta *Bi letter* ipuin liburuak ingelesez ere irakur daitezke. Nerea Letek itzuli zituen eta Ameriketako Estatu Batuetan argitaratu ziren. *Obabakoak* liburuak ere beste lau argitalpen izango ditu datozen hilabeteetan. Aurel Cavaciren itzulpenarekin dagoeneko kalean da errumaniarazko bertsoa. Bernardo Atxagak aurrez errumaniaraz *Behi euskaldun baten memoriak* liburuaren bazeukan.

Bestalde, Gernika argitaletxe sortu berriak erusierara itzuliko ditu euskaraz idatzitako hainbat literatur liburu eta ikerketa. Argitalpenaren helburua unibertsitateko ikasleei eta erusiarrei «euskal mundua» ezagutaraztea da. Has-

teko, Gabriel Arestiren *Harri eta Herri*, Jon Kortazarren *Euskal Literaturaren Historia* eta Kirmen Urribe eta Bernardo Atxagaren obra poetikoak itzulkiko dituzte.

'Obabakoak' 27 hizkuntzetan

Aurrez aipatu ditugun itzulpen guzti horiez gain *Obabakoak* Korean ere aurrean kaleratuko dute. Errusian ere 2010. urte hasieran kaleratuko da, eta kasu honetan, egileak, bigarren liburu izango du erusieraz, *Soinujolearen semea* duela bi urte itzuli baitzen. Estatu Batuetan ere liburuak beste argitalpen bat izango du, bigarrena izango da azalgorrean eta laugarrena orokorrean. Argitalpen berri horiek direla eta, *Obabakoak* munduan zehar 27 hizkuntzetan irakurri ahal izango da.

Itzulpenek ez dute etenik eta *Zazpi etxe Frantzian* eleberriabeste hiru hizkuntzatar itzuliko dute: frantsesera, ingelesez eta portugesez, hain zuzenera.

Poesiaren alorrean ere, Bernardo Atxagaren hainbat poema *Brick* aldizkari kanadarrean eta *Hayden's Ferry Review* estatubatuarrean argitaratu berri dira, euskaraz eta ingelesez.

Jada zenbatu ezinezkoa den bibliografia du bizkarrean asteasuarrak eta orain ikus daitekeen moduan, Atxagaren lanek hizkuntza batean ez bada bestean, argia ikusten jarraituko dute.

'Bildu' lelopean, larunbatean abiatuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Leitza » Hiru leitzar ariko dira lehian oraingo honetan, Miel Mari Elozegi 'Luze', Diego Riaño eta Jose Luis Barberia 'Zili'.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko Txapelketa Nagusiaren errusiar mendiak utzitako haize ufadari jarraituz, Nafarroako Bertsolari Txapelketa hartuko du erreleboa hil honetan. Etzi hasi eta martxoaren 20ra bitartean jokatuko da lehiaketa. 39. edizioan lau final-laurdenek, hiru finalerdik eta finalak josiko dute Txapelketa-aren amarauna. Denera 27 bertsolarik hartuko dute parte, eta tartean hiru eskualdeko izango dira. Alde batetik, jada veterano diren Migel Mari Elozegi *Luze* eta Diego Riaño. Bestetik, estreinakoz, Nafarroako Txapelketa entzuteko aukera izango den leitzarra, Jose Luis Barberia *Zili*.

Aizarotzen emango zaio hasiera Nafarroako Txapelketari, etzi, Basaburuko Kultur Etxean, 17:30etik aurrera. Ondorengo bertsolariak ariko dira kantuan, taula gainean: Julen Zelaia, Bittor Elizagoien, Aimar Karrika, Iker Gorosterrazu, Oier Lakuntza eta Arkaitz Goikoetxea.

Asteburu honetan bertan ere jokatuko da Txapelketa bigarren saioa, igandean, hain zuzen, Sunbillako Ulibeltza Elkartearen. Hau ere 17:30ean hasiko da. Bertan, Xabier Legarreta, Aritz Saragueta, Iñaki Aleman, Iñigo Ibarra, Ekaitz Astiz eta Egoitz Gorosterrazu ariko dira lehian.

Hilaren 31ra arte itxaron behar da eskualdekoak entzuteko. Orduan, Aoizko Kultur Etxeko eszenatokian izango dira hiru leitzar-rrak batera, aurrez aurre. Beraiekin batera lehiatuko dira arratsalde horretan, Ander Fuentes Itturri, Saioa Alkaiza eta Oskar Estanga.

Etzi abiatuko den ibilbideak Lesaka jopuntu

Etzi arratsaldean jokatuko da txapelketako lehen kanporaketa, eta



2008an Elizdoko Lur dantzalekuan jokatuko zen finala, baina aurten, berriro Lesakara itzuliko da. JOSU SANTESTEBAN



» MIEL MARI ELOSEGI

Leitzako bertsolaria, 1970ean jaioa. Bertsotan bere kasa ikasitakoa da. 20 urterekin Deustun hasi zen eta 2001etik aurrera Leitzako beste lagun batzuekin bertso eskolan ari da. 2007an eta 2008an zazpigarren egin zuen finalean.

honi beste hiruk jarraituko diote. Azken urteetako egiturarekin jarraituz, bertsolariak lehen fasetik abiatuko dira. Hala ere, parte-hartzaile kopuru handiaren ondorioz, iazko sailkapena kontutan hartuta, hiru zuzenean sailkatuko dira finalaurrekoetarako.

Behin final laurdenak jokatuta, 18 bertsolari ariko dira finalaurrekoetan. Lehenengo fasetik 15 bertsolari sailkatuko dira, eta aurreko finaleko hiru ordezkari batuko zaizkie: Julio Soto, Iñigo Olaetxea



» DIEGO RIAÑO

Leitzarra da. 14 urterekin bertara etorri zen bizitzera eta zazpi urtean, euskara lehendabizi eta bertsoan gero, ederi ikasi du. Gaur egun, hargintzan egiten du lan. Txapelketa ohiko bertsolaria bihurtu da jada.

eta Jon Barberena. Finalaurrekoetatik zortzi bertsolari sailkatuko dira finalerako. Aurtengo berrikuntza nagusietakoa finalaren leku-aldaketa izango da, Lesakan jokatuko baita, martxoaren 20an. Pilotalekuan izango da hitzordua, 17:00etatik aurrera.

39. honen zenbait xehetasun

Aurtengo txapelketak bi hutsune nagusi izango ditu: Xabier Silveira eta Erika Lagoma, iazko txapeldua eta hirugarrena, hurrenez hurren. Dena den, parte-hartzaile kopurua handitu egin da, iaz baino bi gehiago baitira aurten. Lau bertsolarik lehendabiziko aldiz hartuko dute parte: Egoitz Gorosterrazu, Ioar Tainta, Arkaitz Goikoetxea eta aipatutako Jose Luis Barberia *Zili*-k.

Atsendaldi baten ostean, bi veterano itzuliko dira aurten lehia. Alde batetik, Arkaitz Goikoetxea. Lekunberriko bizilaguna behin baino gehiagotan aritu izan da Txapelketa Nagusiko finalaurrekoetan. Aurten estreinakoz kantatuko du Nafarroako Txapelketa. Bestetik, Estitxu Arozena Nafa-



» JOSE LUIS BARBERIA

1981. urtean jaio zen Leitza. Argiketaria da lanbidez. Iaz hasi zen bertsoan, hasieran bere kabuz eta ondoren Leitzako helduen bertso eskolan. Udazkenean Xalxo Sari-kean aritu ostean, orain Txapelketa parte hartuko du lehen aldiz.

rroako txapeldua izandakoa ere berriro taula gaineraigokoa da. Aurtengo beste behin ere, Txapelketa batzea erabaki baitu.

Bertsolari Txapelketetarako aukeraturako leloek garrantzia handia izaten dute, hitz batean gauza asko esan nahi izaten baitituzte an-

Leitzako hiru bertsolariak hilaren 31n elkartuko dira Txapelketara, Agoitzeko Kultur Etxean da saioa

tolatzaileek. Aurtengo honetan, *bildu* hitza aukeratu dute Nafarroako Bertsozale elkarteok. Honek «lan isil, etengabe baina esker onekoa» islatu nahi du. Elkarteko en hitzetan, «*bildu* horrekin hainbat gauza adierazi daitezke, esaterako, elkartu, fruitua jaso zein babestu». Hori guztia da Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta nola ez, Nafarroako bertsolaritza.

Bestalde kartelean, *bildu* hitza dararamaten inurriak ikusi daitezke, elkarkeak bertsolaritza sustatzeko etenik gabe egiten duen lanaren erakusle.

Laburrak

Memoria lantzeko ikastaroa antolatuko du EPAK

TOLOSA • EPAK, Tolosako Helduentzako Hezkuntza zentroak, ikastaro berri bat antolatuko du datorren hilabeterako. Memoria nola landu erakutsiko dute bertan. Saioak otsailaren 8tik aurrera izango dira, arratsaldeetan. Astean bi ordu izango dira. Izena emateko epea zabalik dago eta hilaren 29ra arte luzatuko da. Hau lgaralde kalean dagoen egoitzan bertan egin daiteke, edo 943 67 26 60 telefono zenbakira deituta.

'Let's get lost' filma ikusgai izango da, gaur Leidorren

TOLOSA • Gaur Zine Forumean *Let's get lost* filma izango da ikusgai jatorrizko bertsoan. Bi saio eskainiko dituzte, lehendabizikoa 19:15ean izango da, eta bigarrena, 21:45ean. Joan den urteko martxoan estreinatzen zuten Bruce Weber zuzendariaren lana. Chet Baker tronpetajotzaile ospetsuaren inguruko dokumentala da *Let's get lost*. Baker musika munduko figura ezagunetako bat da, eta Weber-en miresmenaren iturri da lan hau.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarrain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain.
Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbola: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion Klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosalde bus: 943 650621
Leitzarar autob. : 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leitza): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Iurrarmendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320
Alkoholiko anonimoak: 943 248474



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Eneko Saralegi gazteak Euskal Herriko Txapelketa irabazi zuen Leitzan Talo Egunean, 19 urtez azpiko mailan. HITZA

Aizkorak Lekunberrin elkartuko ditu Saralegi II.a, Mujika eta Arrospide

Aizkora » Pilotalekuan Zilarrezko eta Urrezko Mailako jardunaldiak jokatu dira hilaren 24ean, 12:00etatik aurrera.

ASIER IMAZ

Urrezko eta Zilarrezko aizkolarien Binakako Txapelketaren jardunaldi berria jokatu da Lekunberrin hilaren 24ean, igandean. Bertan egongo dira Saralegi II.a, Mujika eta Arrospide. Aizkora

jaialdia 12:00etan hasiko da eta bi mailetako lehiak ikusteko aukera egongo da.

Arrospide eta Mujika

Leaburuko aizkolariek Erasune-kin osatuko du bikotea, eta hauek aurrean, ibartarra eta Zubiaga edukiko dituzte. Arrospide eta Mujika elkarren aurka lehiatuko dira ondorioz. Bikote bakoitzak, Urrezko Mailari dagokion moduan, 30 enbor moztu beharko ditu 6 modu desberdinetan.

Horien artean zutikakoa aurki-

tzen da. Arrospide eta Mujika txuria eta beltza dira zutikako enborraren aurrean. Leaburuarra maisuetan maisua da modalitate honetan. Ibartarra berriz, gazteagoa

D Datuak

- **Non.** Lekunberriko pilotalekuan.
- **Noiz.** Hilak 24, igandea.
- **Ordua.** 12:00etan.
- **Txapelketak.** Urrezko Maila eta Zilarrezko Maila.
- **Eskualdeetako aizkolariek.** Saralegi II.a, Arrospide eta Mujika.

izaki, estu hartzen du proba honek. Iaz hobekuntzak egin zituen zutikakoa baina konfiantza hartzen hasia zenean, ariketa hau egiten zebilela, aizkorarekin hanka jo eta lesio larria eduki zuen.

Jexumari Mujikarentzat hil ala biziko jardunaldia izango da igandekoa, galdu ezkerro kalean geldituko baita. Hala eta guztiz, gauzak argi ditu: «oso zaila edo ia ezinezkoa izango da irabaztea». Horretarako lehen aipatu arrazoiez gain, bikotearen egoera edo maila aurkitzen da: «Asteasun jo-

katu genuen Urrezko Aizkoraren lehen jardunaldia, urte zahar egunean, eta galdu egin genuen. Orduan Zubiaga nahiko baxu ikusi nuen eta ni berriz, zutikakoa segundok galduz. Orain, Lekunberrin, Arrosperen aurka tokatu zaigu eta hau ariketa honetan onena da, Larretxearekin batera. Horatik ezer onik ateratzea zaila izango da». Zutikakoari dagokionez, konfiantza hartzeko bide bakarra da goela esan du ibartarrak, «lanean jarraitzea».

Saralegi II.a, Zilarrezko Mailan

Eneko Saralegi leitzarrek 16 urte ditu eta Zilarrezko Mailan Erdoziarekin osatuko du bikotea. Beltza-Sakana izango dituzte aurka Lekunberrin. Bikoteek 20 enbor moztu beharko dituzte 5 modu desberdinetan.

Saralegi II.arentzat Binakako Txapelketan parte hartzea esperientzia berria da: «Gustura eta ilusio handiarekin nago. Egia esan urduri ere bai, baina udan erakustaldi batzuk egin ditugu eta ohitzen joaten zara. Erdozia lehendik ere ezagutzen nuen pixka bat baina txapelketarako elkarrekin aritu gara entrenatzen, pare bat alditan».

Txapelketari zer eskatzen dion galdetuta, oinak lurtean dituela erantzuten du leitzar gazteak: «Aurkari hauen aurka zaila izango da; lehia parekatua izango dela uste dut. Ondo atera eta lehen kanporaketa pasa ezkerro, gustura sentituko ginatke. Finalera iristea berriz oso zaila ikusten dut, bikote onak baitaude». Zer nolako aizkolaria den galdetuta, abiadurako proban lanak izaten dituela onartu du Saralegi II.ak. Besteetan berriz «nahiko ongi» moldatzen omen da. Horien artean zutikakoa aurkitzen da, gazteak gustukoa duen ariketa. Saralegi aizkolaria sena familiarik dator. Inguruan beti aizkoran ikusi ditu eta probatzera «animatu» ondoren gustatu egin omen zitzaion. Inguruko lagun-tza ere biziki eskertzen du, «horiek gabe ez baitago ezer egiterik».

Saralegik eta Eskuderok 22-9 irabazi dute

Pilota » Mikel Olazabalek eta Oinatz Bengoetxeak igandean jokatu dituzte Binakako Txapelketako partidak.

A. IMAZ

San Sebastian Egunean Binakako Txapelketaren partida jokatu zuen Ekaitz Saralegik Azpeitian, Eskudero lagun zuela. Aurkari berriz, Berasaluze IX- Larrinagazan zizuten.

Amezketarraren partida ikusgarri batean, Saralegi-Eskudero txapelketako bigarren garaipena



Bigarren Mailako Binakako Txapelketaren aurkezpen ekitaldia. HITZA

lortu zuten, 22-9eko emaitzarekin. Markagailuko alde ez zen kantxan ikusi. Berasaluze IX- Larrinaga pilotatzen ongi aritu baitziren. Gakoa aurreko koadroetan egon zen; Berasaluze IX.ak asmatu ez zuen bitartean, Saralegik harrapatu zuen guztia tantoan bilakatu zuen.

Bi garaipen lortuta sailkapen buruan aurkitzen dira atzoko garaileak. Hurrengo partida, hirugarrena, hilaren 31n jokatuko dute, Aritz Lasa eta Merinoren aurka.

Mikel Olazabal, igandean

Bigarren mailan jokatzeko ari den beste gure pilotaria Mikel Olaza-

bal da. Aresoarrak lehen partida Saralegiren aurka 13-22 galdu zuen eta bigarrena, Arrutirekin batera, Murillo El Fruto (Nafarroa) herrian jokatu du hilaren 24ean, igandean. Hauen aurkariak Diaz eta Apraiz izango dira.

Bengoetxea VI.a Errioxan

Egun berean baina Lehen Mailako Txapelketan, Oinatz Bengoetxea leitzarrek Titin III-Paskualen aurka jokatu du Beloki lagun duela. Partida Logroñoko (Errioxa) Adarraga pilotalekuan lehiatuko da. Leitzarrek eta burlatarrak txapelketako lehen partida irabazi eta bigarrena galdu egin zuten.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo.
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdia

■ **Anoeta.** Otsailaren 6an egingo duten Dantza-Sokan parte hartu nahi dutenek Itzuli tabernan eman dezakete izena. Entseguak kiroldegian izango dira astelehenero 19:30ean. Horiek horrela fandangoa eta arin-arina ikasteko entsegu hilaren 25ean 18:00etan izango da; axeri-dantzarako entseguak bihar eta hilaren 29an izango dira; eta entsegu orokorrak, aldi, otsailaren 1ean izango dira 19:30ean.

■ **Tolosa.** Ero Etxe elkarteko XXIII. krosa igandean, hilak 24, 11:30etik aurrera Zerkausitik abiatuta. Haurrak Alde Zaharreko kaleetan zehar izango dute ibilbidea.

Jaiak

■ **Leitza.** Ihoteak hilaren 23tik 26ra.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz L. Amaro azu-
zoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Lekunberri.** Azpiroz M. A. Aralar
kalea, 43. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Zahar berri.
09:00. Muka-Muka.
09:30. Tolosaldean Gaur.
10:00. Kafet' erdi.
10:30. On ein!
11:00. Planik bai.
11:30. Tolosaldean Gaur.
12:00. Artegitza.
12:30. Wazemank.
13:15. Klipak.
13:30. Tolosaldean Gaur.
14:00. Kafet' erdi
14:30. On ein!
15:00. Planik bai.
15:30. Tolosaldean Gaur.
16:00. Artegitza.
16:30. Wazemank.
17:15. Klipak.
17:30. Tolosaldean Gaur.
18:00. Gipuzkoa kultura.
18:30. EH lau haizetara.
19:00. 16 mm.
19:30. Tolosaldean Gaur.
20:00. Ikusten.

(*16:30etik 20:00etarako blokea lau ordu errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.



Danbor hotsetatik ihesi

GIZARTEA • Danbor hotsak izan ziren nagusi atzo Donostian eta Azpeitian, baina eskualdean San Sebastian eguna beste modu batera ospatu zuten. Leaburu-Txaraman meza izan zuten lehenero eta ondoren herri-

ko dantzarien saioa izan zen, euripean izan bazen ere, irudian ikusi daitekeen bezala. Berastegin, Orendainen eta Berrobin ere mezak izan zituzten, nahiz eta Orendainen bazkaria ere egin zuten. N. LATABURU

A Agurrak



Urte askoan!

Mikaela Zabala Goñi (Txarama).
Gaur 88 urte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>